

OINARRIZKO BAZKIDEAK

Lehen aipatu dugun bezala, **Ormendi Kirolak** dendarekin **akordioa** dugu. Nagusiarekin bilera eduki ondoren, gure produktuak dendan salduko dituztela adostu genuen. Akordioan sinatutako baldintza salmenta bakoitzaren **irabazien %20arekin** geratuko direla izan zen.



Online saltzen ditugun produktuak bezeroei iritsi ahal izateko, **hitzarmen** bat daukagu **garraio enpresa** batekin. Horren ondorioz, guk **ez dugu** garraioen arloan **parte hartzen**, hau da, garraio enpresa izango da gure produktuak bezeroen etxeetara bidaltzen arduratuko dena.

Europako beste herrialdeei bidaltzeko gai gara. Kamioien eta itsasontzien bidez gure produktuak garraiatuko dituzte. Horregatik, Espainiatik kanpo eskatzen dituzten bezeroek, denbora gehiago itxaron behar izango dute produktuak iristeko, baina inoiz ez aste bat baino gehiago, opor egunetan izan ezik.

